



# Andikoagoena (-a) etxebizitza

Aldacrak: Gonengoa

Ahozkoa: Andikoagonengóa / Gónengue

“... un caserío llamado Andico-  
na-goengoa, en término de  
la anteiglesia de Berriz... ocupa  
una planta solar de setenta y  
cuatro estados ó sean doscientos  
ochenta y un metros...”  
DJE, 5/ 231 or. (1887)



43° 11' 28"

2° 35' 10"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Izenak adierazten duen moduan, Andikoa etxe multzoaren punturik gorenean dago kokatuta baserri hau, XVI. mendetik gutxienez. *Andikoa-parizio* (**Ikus Andikoaparizio**) eta *Andikoa-goitia* (**Ikus Andikoagoitia**) baserrien atzealdean dagoen etxe honen gaineko lehen aipuak Bizkaiko su-erroldean aurkitzen ditugu: *Andiconagoena* (1704) eta *Andicona Guena*. XIX. mende erdialdera arte, *Andiconagoena* (1857, BUA, Viv) forma da nagusi, eta orduz geroztik, *Goengoa* (1866, DJE, 2/ 20. or.) eta *Andiconagoengoa* (1887, DJE, 5/ 231. or.) bezalako erak agertzen dira. 1967an, Udalak egindako eraikin-errolan *Gonengoa* (BUA, CE) izenez agertzen da

erregistratuta, zalantza barik *Gónengue* ahozko formaren eraginez. Berriztarrek *Andikoagonengóa* eta *Gónengue* formak erabiltzen dituzte.

Baserriak XVI. mendeko horma bat gordetzen du, silarriek erakusten duten bezala. Estua eta luzea da, bi horma paraleloen artean egindakoa, eta aldatsari egokitua. Fatxada oso simplea du, luzitua eta pintatua. Bi pisuak nabarmentzekoak dira. Hala, behean, ate bi bereiz daitezke, eta goikoan, leiho txiki bat eta hormigoizko balkoia, bi besok eutsia. Isurki biko teilatua dauka, hegal zabalekoa, eta horri eusteko ere, besoak ditu lagungarri.